


Astekaria

BARREN

elgoi



Eskalatzaile onenak Elgoibarren



ELGOIBARKO

Udal Kirol Zerbitzua

gero, Mintxeta guztiontzako prest.

3 LAU HANKATAN

"Oztoporik ez, mesedez" **Joxin Arregi.**

6 ERREPORTAIA: HAIZE BERRIAK NEKAZARITZAN

Duela bost urte, Pello Rubio, 45 urtekoa, bere emazte Lourdes eta alabarekin, kaleko bizitzaz apur bat aspertuta, Sallobente bailarako Txillarre baserrira bizitzera joan ziren.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: ZER IRITZI DAUKAZU EHIZARI BURUZ?

Ramon Agirregomezkorta: "Gaurko ehiztariak inoiz baino errespetu gehiago diola ehiza garaiari eta baita espezieei ere."

Mikel Kornejo: "Jasan ezin dudana gauza bat gero eta ehiztari gehigok duten 'pentsamolde ekologista' da."

14 BERBETAN

Juanito Arrieta eta Agapita Soraiz:

"Gu milionariak gara; ez dirutan, baina bai ondasunian"

16 KIROLA:

GAIA: DENA PREST EUSKADIKO ESKALADA TXAPELKETARAKO.

ELKARRIZKETA: **Josu Merino:** "Txapeldunei begiratu ez ikasten saiatuko gara"

20 ELKARTEETATIK BUELTAN

ELIZ ABESBATZA: IA EHUN URTETAKO LANA

21 KULTURA

JENDE GUTXI MUSIKA KLASIKOKO KONTZERTUETAN

TXANDAK

FARMAZIAK:

19, larunbata: **ORMAZABAL**

20, igandea: **ORMAZABAL**

21, astelehena: **ETXEBERRIA**

22, asteartea: **ETXEBERRIA**

23, asteazkena: **ETXEBERRIA**

24, osteguna: **ETXEBERRIA**

25, ostirala: **ETXEBERRIA**

OKINDEGIAK:

20, igandea: **BOUTIQUE DEL PAN**



PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak741155

Txanda hartzeko.....743354

Alkoholiko Anonimoak740385

D.Y.A (anbulantzia).....464622

Gurutze Gorria743864

Mendaroko Ospitala.....756264

Drogomenpekotasun Zerbitzua

(Anbulatorioa)743936

Odol Emaileen elkarte.....741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak740442

PESA (Eibar)112131

Taxi Geltokia740898

UDALA

Euskara Zerbitzua744366

Kultura eta Kirol Zerbitzua...742158

Mendaroko Udala756100

Ongizate zerbitzua743736

Udaletxea741050

Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142

IMI741196

Kontsumo Bulegoa (OMIC) .743088

Liburutegia.....743525

Musika Eskola.....742145

Polikiroldegia.....741361

Postetxea741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza740296

Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79

I.M.H.....74 41 32

Institutua74 02 67

Ikastola.....74 27 00

L.H.I.....74 31 00

Pilar Ikastetxea.....74 13 31

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



elgoiBARREN

Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkartea
☎ 74 16 26

Laguntzailea
Elgoibarko Udala

Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirreazaldegi

Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu

Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton
Bergara, Edurne Bilbao,
Rosa Iriondo, Jose Inazio
Sarasua

Kazetaria
Ainhoa Lodoso

Maketatzailea
Maite Rementería

Publizitatea
Amaia Leiaristi

Administrazioa
Josune Fernandez
M. Angeles Ortuoste

Kolaboratzaileak
Myriam Aldazabal, Alberto
Ansuategi, Isabel Ansola,
Joxin Arregi, Belen
Arrizabalaga, Bertso Eskola,
Agur Miren Barandiaran,
Hasier Etxeberria, Maite
Iriondo, KOKOE, Imanol
Larrañaga, Aitor Lodoso,
German Meababasterretxea,
Jasone Osoro, Diana Perez
de Albeniz, Lorea Perez de
Albeniz, Eduardo Sanz,
Aitor Zabaleta

Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia

Helbidea
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

Tirada
3.000 ale

Lege gordailua
SS-1.038/92

ISSN
1133-021X

elgoiBARRENek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

LAU HANKATAN



Joxin Arregi

Oztoporik ez, mesedez

Egun gutxi barru, uztailaren 6an eta arratsaldeko 7,30etan Elgoibarko Kultur Etxean Deba aldeko elbarritu fisikoak eta mundu honekin kezkatutako pertsonak bilduko dira.

Ikusirik beraietako norbaitekin egunez zenbaterainoko arazo eta kezka azaltzen diren, dudarik ere ez dut egiten bilera hori guztiontzako aberasgarri eta komenigarria izango denik.

Baina bilera aurretik eta deiaren asmoak jaso, akaso denok esperientzia txiki bat egin beharko genuke. Bilera aurretik gelditzen den hilabete honetan, gutako bakoitzak goiz batean "gurpildun" aulki horietako batetan eseri eta egun horretako betebeharrak egiten saiatu.

Jo dezagun goizean goiz jeiki eta ikastera zoazela. Akaso ezingo duzu zuk nahi duzuna eta zuk nahi duzun lekuan ikasi. Egin ezazu zerrenda bat nora joatea gustatuko litzazukeen izendatuz eta bertara joan; baina ez ahaztu eserita joan beharko duzula.


Baina hezkuntza mundua utzi eta lanean hasten zarenean, elbarritu fisikoengan pentsatuz sortu ziren lantokiak erabat aldaturik daudela ikusiko duzu, eta horietan ere langileen egoera aldatzen ari dela.

Baina zorionez arratsaldea iristen da, eta horra hor gogoko dituzun gauzak egiteko aukera. Arratsalde honetan hitzaldi interesgarria izango dugu herrian. Baina eguraldia zoragarria dago eta hondartzara joateko gogoia ere hor dago. Gauza bat zein bestea egiten saiatu eta norbait laguntzeko prest ez badaukazu, ziur egon taberna batean zerbait hartzen bukatuko duzula.

Egin dezagun aproba eta zalantzarik gabe, uztailaren 6an han izango gara asko eta asko arazo hauetaz kezkatzeko eta, denon artean, soluzio bideak martxan jartzeko.

Ez nuke bukatu nahi bilera horretan egingo den elbarritu fisikoen "anaidia"ren aurkezpena aipatu gabe. Aspaldian jaiotako anaidia dugu, orain dela 50 urte Frantzian jaiotako mugimendua. Elbarrituak dira mugimenduaren jaun eta jabe. Anaidia, elbarrituen bitzitza eta arazoak, protagonista direneko mugimendua da.

Deialdiari jarri dizkioten hitzekin, hitz horiekin, bukatu nahi nuke gaur: "Aztertuko diren gaiak kontutuan izanik, gonbidapen berezia luzatzen dizuegu bailarako gaiso, elbarritu fisiko eta mundu honekin kezkatutako pertsoneri...".



CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.

*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak
Bainu manparak*

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

Fotero
OKINDEGIÀ
OPILDEGIÀ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Gazte Asanblada

Gazte Asanbladak, frogarik gabe autoritateei irain egiteaz salatutako bi gazte absolbatu dituen sententzia publiko egin nahi du.

92-10-13an, 8 ertzainek atxilotu zituzten taberna baten barruan. Eibarko komisaldegian pasa zuten gaua, non biluztu eta "identifikazio gela"n flexioak egitera derrigortu zituzten (peli-kuletan bezala, ispilu baten aurrean beraiek beste aldetik begiratzen zaituzten bitartean). Fitxatu, umillatu eta iraindu egin zituzten.

Eragilea 9. zenbakia duen Garro polizia municipalaren izan zen, izan ere, gazteetako batek papel batzuk eramatearen arrazoi hutsagatik, Ertzantza ohartarazi eta kartelak jartzeaz salatu zituen. Kuarteltxo munizipaletik, gazteen datuak (erabiltzen duten kotxea eta guzti) ertzantzako "sekretei" pasa zitzaizkien. Apur bat geroago taberna batean atxilotu zituzten, mehatxuka eta porra eskuan zeramatela ("te voy a dar una ostia en la boca...").

Maiatzaren 13ko epailetan, Garro municipalaren gazteei errua botatzen saiatu zen, erdibidean Gazte Asanblada ere nahastuz arazoan (garai hartan ez zuen funtzionatzen). Zera ere esan zuen: munipek ez dutela N.A.N.a eskatzen kartelak jartzen

dituztenak salatzeke eta Ertzantzak bi gazteak salatu ez balitu, udaletxeak ohizko isuna ezarriko zuela).

Gazte Asanbladak polizia municipalaren ohizko ekintza hauek, eta era berean, bere jarrera errepresibo politiko-soziala salatu nahi du. N.A.N.a ez eskatzeagatik hainbat gaztek epaitegitik pasa behar izan dute, salaketa faltsu eta erratuengatik. Eta zer gertatzen da, kasu honetan bezala, susmo soilean fidaturik jartzen dituzten isun guzti horiekin? Aski da.

Hala ere ertzantzak atxiloturiko pertsonen ematen dien tratamendua salatu nahi dugu. Norbanako eta kolektiboaren eskubideen zapalkuntza eta sektore inkonformista edo/eta marginalen pertsekuzio eta kriminalizazioa.

Gazte Asanblada adierazpen askatasunaren alde eta iragarki ez-komertzialen arautegiaren aurka dago, azken hau kolektibo popularrak isilarazteko eginik dagoelako. Akaso iragarki elektoral eta komertzialek gutxiago zikintzen dute? Agintariei traba egiten diena ez da kalean dagoen "zikinkeria", baizik eta kolektibo sozialek haien gehiegikeriak salatzea, herri guztiari jakinaraztea eta hainbat ekintza publiko antolatzea.

Gazte Asanblada

Ikastolaren alde

Ikastola Publikoaren alde artikuluar buruz, ELGOIBARREN astekariko 21. zenbakian argitaratua, honako puntualizazio hauek egin nahi ditugu:

1.- "Ikastola Publikoaz" orain hitzegitea demagogia egitea eta seriotasun gutxiakoa iruditzen zaigu.

Legearen arauera une honetako aukerak bi dira: Eskola Publikoa eta Pribatua. Elgoibarko Ikastolak bere Asanblada, zentru horretan dagoen erregelamendua ezin hobeto betez ospatu zuen, eta beraz, Elgoibarko Ikastola sare pribatuan dago.

2.- "Ikastola" defenditzen dugunok artikulua horretan (guraso eta langile guztiek aukeratutakoa) Junta Erretoraren aurka "Ikastola Publikoa" defenditzen omen dutenen salaketak arbuiatzen ditugu. Junta Erretorak bere egin-beharra bete baino ez du egin, kasu honetan kooperatiba honetan dagoen erregelamendua aplikatzea zelarrik.

3.- "Estrategiei" dago-kionez, bakoitzak berea defenditzen du. Ikastolek, logikoa den bezala, beren Federazioarena, beste batzuek beraiek jakingo dute zeinena. "Argudio merke"-ei buruz, dezente erabili

direlakoan gaude, baina ez Ikastola defenditzen dugunon aldetik, eskola publikoa defenditzen dutenen aldetik baizik.

Arrazoi merke hauek gurasoak koakzionatzeko erabili dituzte, errealak ez ziren kuota altuez beldurraziz, Junta Erretorak gurasoek bidalitako kopuruez frogatu den bezala.

Ez dute azaldu, esate baterako, Ikastolan 16 urtera arte ikasi ahal izango dutela, eta Publikoan 12 urterekin eskolaz aldatu beharko dutela.

Ikastolaren aldeko argudio gehiago ager daitezke, baina azken egunotan bazkideei bidalitako idatziari lotuko gatzazkio. Elgoibarko Ikastola denon artean egin dugu. 31 urte darrazaz funtzionatzen eta oso ondo ari delakoan gaude, eta etorkizun perspektiba onekin. Hortaz, guk denok erein eta luzaro zaindutako arbola bezalako da, eta ez dagoela baso ezezagun batera zertan aldatu, pentsatzen dugu.

Elgoibarren aukerak argi daude: Eskola Publikoa, El Pilar ikastetxea eta Ikastola.

Gurasoek beren gustukoena aukera dezatela.

Guraso batzuk

Garbiñe Edergintza



- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektrikoa eta hotzean.
- Solariuma

P.M. Urruzuno 27. Tel: 74 31 32

BETI ARGÍ, S. L.

Erregalu artikuluar
Instalazio orokorrak
Sukaldeko tresneria.

ERROSARIO 6 behea. Tel: 74 16 44.



Aste honetako erretratua **Jabier Agirregomez-kortak** laga digu. Berak esan digunez, erretratua 1955. urtean San Pedroko taberna parean ateratakoa da.

Erretratuan azaltzen direnak San Pedro bailarako gazte gehientsuenak omen ziren eta despedidaren bat izan zuten aitzaki, bazkari baten bueltan elkartzeko.

Ikus dezagun erretratuko morrosko kuadrila hau nortzuk osatzen duten. Goitik behera eta ezkerretik eskumara:

Lehen iladan: **Pako "Sagartuitza"**, **Eugenio "Gurutzalegi"**, **Pedro "Gurutzalegi"**, **Andres "Legarda Txiki"**, **Floren "Urkiola Txiki"** eta **Andres "Urkiola"**.

Bigarren iladan: **Sebastian "Eguren"**, **Migel "Irunabe"**, **Jose "Armueta"**, **Jose "Gurutzalegi"**, **Juan Maria "Akei"**, **Andres "Irunaga Txiki"** eta

Julian "Irunaga Berri".

Hirugarren iladan: **Juan "Urkiola Txiki"**, **Pedro "Aitz-Bizkar Bekoa"**, **Franzisko "Aitz-Bizkar Goikoa"**, **Sabino "Zubizarreta"**, **Pedro "Gelatxo"**, **Vicente "Sagartuitza"**, **Santiago "Ipintza"**, **Sebastian "Aranburu"**, **Manuel "Ipintza"**, **Jose "Goiko Etxe"**, **Leandro "Irunaga Txiki"** eta **Jose "Irunaga Berri"**.

Laugarren iladan: **Sabino "Egi"**, **Kele "Aranburu"**, **Genaro "Sagartuitza"**, **Inazio "Barrena"**, **Jose Maria "Aitz-Bizkar Bekoa"**, **Silvestre "Zubizarreta"**, **Manuel "Sagartuitza"** eta **"Koreano"**.

Bostgarren iladan: **Sebastian "Legarda"**, **Pedro "Galburusoro"**, **Jose Maria "Arraitza"**, **Andres "Kortazo"**, **Iñaki "Sagartuitza"**, **Roman "Urkiola"**, **Felix "Osoro Haundi"**, **Iñaki "Goiko Etxe"** eta **Sabino "Auztakon"**.

Iraegui
ERROTULAZIOA
☎ 74 39 52
San Antolin 74 37 06

Mandiola S.L. Egurrak
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42

Haize berriak nekazaritzan

Duela bost urte, Pello Rubio, 45 urtekoa, bere emazte Lourdes eta alabarekin, kaleko bizitzaz apur bat aspertuta, Sallobente bailarako Txillarre baserrira bizitzera joan ziren. Denbora horretan, baserria goitik behera berritu, eta barazkiak lantzen hasi ziren. Baina ez era konbentzionalen. Pellok sistema biologikoa deitzen dena erabiltzen du.



↳ Barazki gehienak negutegietan lantzen ditu Pellok.

Bizimodu ezberdin baten bila etorri zen Pello baserrira. 40 urte beteta, Txillarre baserrian bizitzeko aukera suertatu zitzaion. Gehiago pentsatu gabe, baina gauzak ondo argi izanda, baserria konpontzeko lanari ekin zion. Kaleko etxea saldu, tailerreko lana utzi eta baserritik bizimodua ateratzeko asmo sendoarekin hasi zen lanean. Dena den, Pelloren emazteak, Lourdesek, kalean jarraitzen du lanean baserriko lanaren muga ekonomikoeh ohartuta.

Letxuga bat lantzen ere ez zekiela aitortu du Pellok. Hanka sartuz eta letxuga

asko alferrik galduz ikasi du Pellok barazkiak ganoraz hazten. Lehendabizi, sistema biologikoaren gorabeheraz jabetzeko ikasteko ikastaro bat egin zuen. Orain, bost urte beranduago, perfekzioetik urrun dagoela esaten du, bere helburua perfekzioa lortzea ez bada ere.

Ortuko fruituak hazteko sistema konbentzionalak erabiltzen dituen ongarrak kimikoak baztertzen ditu sistema biologikoak. Gure baserrietan barazkiei ematen zaien tratamendu kimikoa ezagutu ondoren, produktu kimiko gehiegi erabiltzen

zutela konturatu zen Pello. Beraz, jatekoarekin kontu handiagoa izan behar denaren sinismenaz, barazkiak modu guztiz naturalean haztea erabaki zuen.

Barazkien ongarrak bakarra abereen zimaurrea da. Pellok ez du abererik, horregatik inguruko baserrietara joaten da traktorearekin zimaurrea bila. Urtebetean, 15.000 kilo zimaurre erabiltzen du Pellok.

Ikuluko zimaurreak prozesu bat pasa behar du lehendabizi. Kantitate jakin batzuekin piloak egin eta fermentatzen lagatzen da.

**Urtebetean,
15.000 kilo
zimaurre
erabiltzen du
Pellok
barazkien
ongarrak gisa.**

 **XABIER**
ILEAPAINDEGIA
*Eskatu
eguna eta ordua*
San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

Tik-Tak
HAUR ERROPA DENDA
Errosario 21, ° ☎ 74 17 15

LOPEZ
IZOZKIAK
CROISSANTAK
San Bartolome 4

Zimaurra desegin egin behar da humus bihurtu arte.

Hilero, bueltak eman behar zaizkio piloari alde guztietatik berdin ustel dadin. Zimaurra aberatsagoa izateko, fosfato naturalak, harriak eta egurraren errautsa botatzen dizkio, zimaurrak potasioa eta horrelako mineralak har ditzan. Usteldu ahala, zizareak eta ikusten ez diren mamorroak sortuko dira eta beraiek bihurtuko dute zimaurra humus. Hiru hilabete pasatzean zimaurrak usaina ere galdu egiten du eta dagoeneko humus bihurtu da. Ongarri honen bidez, landareak lurretik hartzen ditu sendo hazteko behar dituen mineral guztiak. Sistema konbentzionalarekin landareak asko hazten dira baina guztiz makalak. Ongarri biologikoarekin, berriz, sendoagoak hazten dira. Gogor eta sendo hazitako landarea gainera, nekez gaisotuko da.

Landareen gaitzak sendatzeko tratamendua ere biologikoa da. Asuna eta azeribuztana euri urarekin egosi eta ura usteltzen denean landareari botatzen zaio. Edota batzutan, esnea eta "Lagarto" jaboia, sosa hutsa dena botatzen dio. Landare sendo eta osasuntsuak haztea da sistema honen filosofia. Gainera, lurra ez da erretzen eta luzaroan erein daiteke.

Pelloc sasoiko landarea

**Usteldu
ahala,
zizareak eta
ikusten ez
diren
mamorroak
sortuko dira
eta beraiek
bihurtuko
dute
zimaurra
humus. Hiru
hilabete
pasatzean
zimaurrek
usaina ere
galdu egiten
du eta
dagoeneko
humus
bihurtu da.**



➔ Fruitua sendoagoa hazten da ongarri biologikoari esker.

lantzen du beti. Orain, 2.000 tomate landare, 1.500 baina landare eta 700 piper erein ditu. Guztira, lau negutegitan banatuta duen 2.000 metro karratu lur lantzen ditu. Bertatik ateratzen duen produktua Elgoibarko zein Debako dendetan saltzen du. Prezioa bertoko barazkiaren parekoa da baina zertxobait garestiagoa izan beharko lukeela uste du Pelloc landare hauek hazteak eskatzen duen lan metikulosoak kontutan izanda.

Sistema hau ezagutu ahala, gero eta gehiago jendeak mota honetako produktuak

eskatuko dituela ziur dago Pello. Apustua, ordea, bizi-modu askoz osasuntsuago baten aldekoa da. Sistema honen atzetik bizi-filosofia bat dago. Naturarekin kontaktuan dagoena, ekologikoa eta baserritarra den bizimodu trankilaren filosofia.

Momentu honetan laupabost baserritar ari dira Pello bezala sistema biologikoarekin. Orain denok batu eta elkarte bat sortu dute. Euskadi mailan ere, proiektu honekin ari direnekin batera, elkarte bat sortzeko gogoarekin daudela esan digu Pelloc.



MEKANOSA

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX


Errosario 30 tel: 74 02 84 Elgoibar

INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

PUB



elgoibar

Zer iritzi daukazu ehizari buruz?

Ehiza kirola da eta kirol guztiak bezalaxe, egunerokotasun hits eta gogaikarritik ateratzen laguntzen digu.

Gipuzkoan bakarrik 28.000 lizentzia dira gutxi gora behera, penintsulan 1.300.000ra iristen direlarik. Era berean, marko ekonomikoan bilioi erdi pezeta mugitzen du. Kirol hau, Alemania, Ingalaterra, Frantzia eta Estatu Batuak bezalako herri garatuetan praktikatu izan da eta praktikatzen da.



Bere etsaiak ugaririk, beren burua haien alde sakrifikatzer pasatzen delarik.

Badakit nere iritzi hauekin asko eta asko ez direla bat etorriko, ekologistak kasu, baina ekologismo serioak badu ehizarekiko begirunea, bada-kielako ehiztariak ehiza zaindu eta babestu egiten duela.


Esan dezakegu gaurko ehiztariak inoiz baino errespetu gehiago diola ehiza garaiari eta baita espeziei ere. Izan ere, ehiztariak jakin badaki kontzientziazio aldaketa izugarria dagoela eta noski, bere geroko bizitzak, hein handi batean behintzat, hortxe duela gakoa.

Ramon Agirregomezkorta

(Erredakzioan itzulia)

Bere etsaiak ugaririk, beren burua haien alde sakrifikatzer pasatzen delarik. Badakit nere iritzi hauekin asko eta asko ez direla bat etorriko, ekologistak kasu, baina ekologismo serioak badu ehizarekiko begirunea, bada-kielako ehiztariak ehiza zaindu eta babestu egiten duela. Esan dezakegu gaurko ehiztariak inoiz baino errespetu gehiago diola ehiza garaiari eta baita espeziei ere. Izan ere, ehiztariak jakin badaki kontzientziazio aldaketa izugarria dagoela eta noski, bere geroko bizitzak, hein handi batean behintzat, hortxe duela gakoa.

Ziur nago ehiza desagertuz gero, basoko animaliek duten dohabetako batzuk galduko liratekeela, izan ere, basokoak izateari utziko liokete. Gehi-ago esango nuke, ehiztaria espezie ehiztari izatetik, ehiza lekuen babesle bilakatzen da; animaliak sakrifikatze-



Gaur egun munduan dauden arazo guztien aurrean, beharbada ehiza astakeria bat dela esateak zentzurik ez daukala pentsa dezake batek baino gehiagok. Egia esan, gizaki asko jasaten ari den zapalkuntza, ehiza baino arazo larriagoa dela ezin uka daiteke. Baina, bestalde, guztia erlazionatzea ere ez litzateke gehiegizkoa. Ez giza arazo hauei garrantzia kentzeko, inola ere, baina bai inguruko beste arazo batzuek bere lekuan uzteko, guztien oinarria berdina dela uste baitut: errespetu falta.

Jasan ezin dudana gauza bat gero eta ehiztari gehiagok duten "pentsamolde ekologista" da. Batzuen esanetan, ehiza ez da naturarekin kontaktuan mantentzeko aitzakia bat besterik, baita natura ezagutzeko ere. Maitatzeko. Ez dut ulertzen guzti hau aurrera eramateko bidea eskopeta bat lepoan hartu eta animaliak akabatzeko jarrera aukeratu izana, natura ezagutzeko beste modu asko daudelarik, honekiko inolako bortxakeriarik egin gabe.

Ehizaturiko animaliak, kasu okerrenean etxeren bateko txokoa ornatzen amaitu arren, jan egiten dira gehientan, akabatzeaz gain. Aspaldiko kontua da animaliak jateko hiltzen ditugula, baina oso ezberdina deritzot kirol izenpean banalizatu den

ehizaren sariak jateari. Kirola, gizakien ahalmenen garatze eta lehia da, eta ez dut uste inolako hilketarik behar denik frogatzeko.

Askotan, ehizak naturari on egiten diola ere entzun izan dut, gehiegizko hazkundera duten espezien kontrola mantentzen laguntzeko. Hau sutea itzaltzea bezala da sua piztu duenaren atzetik joan beharrean. Naturan inolako desorekarik baldin badago, azken urteetan gizakiek euren maila ebolutibo "azpitik" dagoen edozein bizidunni zor zaion errespetua ez eskaintzeagatik da; ez behar duguna hartzeagatik, baizik eta naturaren aurka joatea superbizipen kontua izatetik kirol bihurtzera pasa delako.

Mikel Kornejo

ETA ZURE USTEZ?

Zer iritzi daukazu ehizari buruz?



Gorka Mujika
20 urte, ikaslea

Gustatzen jat, baina ez dot praktikatzen. Ez jat gaizki iruditzen, beti ere, hiltzen diren txorietako asko badaude.



Maria Luisa Alvarez
40 urte, etxekoandrea

Etxean aitak ehizatzen du eta hori dela eta zerbait ikusi dut. Txoriak horrela hiltzeak arrazoirik gabe, erruki ematen dit.



Jose Gonzalez
65 urte, jubilatua

Dagokion garaian ehizatu behar da. Nik lizentzia daukat baina ez naiz hemen ibiltzen, ez dagoelako zer ehizatu. Extremadurako kotoetan ehizatzen dut.



Miriam Garate
27 urte, dendaria

Aurka nago, zeharo. San Lorentzora joaten naiz egunero eta zenbat txori dauden ikustea eta bertan ehizan ibiltzea debekatu dutela jakitea zoragarria iruditzen zait.



Sebastian Gorrotxategi
45 urte, mekanikoa

Ehizaren aurkakoa naiz. Txorien aurka disparatzea ez zait batere gustatzen. Gehiago kontrolatu behar-ko litzatekeen gauza bat dela uste dut.



Ainhoa Irureta
24 urte, ikaslea

Ehizatzea ez dago gaizki, beti ere ez badira desagertzeaz dauden espezieak hiltzen. Neri pertsonalki ez jata batere gustatzen, baina askori bai.

BUZONEOA / KOTXEAK / KARTELAK
POSTA KOMERTZIALA

**PUBLIZITATE BANAKETA
ETA PRODUKZIOA**

**PABLO
LOZANO MORA**

San Frantzisko, 56
☎ Ofizina 74 36 42
☎ Etxea 74 38 69

JAUREGI

INPRIMATEGIA

KATALOGOAK-LIBURUXKAK
INPRIMAKIAK
TIPOGRAFIA ETA OFFSET
LIBURUDENDA-PAPERDENDA

San Frantzisko, 20.
Tel: 74 13 29

BARRENek

PUBLIZISTA BAT BEHAR DU

Interesatuak bidali
curriculum-ak, ekainaren 28a
baino lehen helbide honetara.

ELGOIBARKO IZARRA
Kultur Elkarte
Ubitarte 4 behea Tel: 74 16 26

Familiarekin bizi diren pertsona nagusientzako laguntza programa

Familiarekin bizi diren pertsona nagusiak, zaharren egoitzean aldi bat pasatzeko programan izena emateko epea maiatzaren 24az geroztik zabalik dago. Laguntza programa honen helburua, bere kabuz moldatzen ez diren zaharrei laguntza ematea da epe jakin batean, opor garaian esaterako, bere zainketaz arduratzen den familiak atsedean har dezan.

Halaber, Lan eta Segurantzaren Ministeritzak atzerrian bizi diren edadetuentsat pentsio sistema bat jarri du martxan.

Informazio gehiago eskuratzeko, kasu batean zein bestean, 74 37 36 telefonora dei daiteke.



Santiagoko bidea oinez egin berri dute argazkian dagoen senar-emazte elgoibartar hauek. **Modesta Iriondo eta Joxe Oñederra** dira eta Orreagatik Santiagorako bidea 28 egunetan burutu dute. 900 kilometro guztira, euria, izotza, elurra eta hotza jasanez. Izugarri hunkituta etorri dira ibilbidea egitetik eta berriro ere joateko gogoaz daudela esan digute. Gauza mordoa dutela kontatzeko eta, aurrerago beraiekin hizketaldi bat izateko aukera izango dugu.



**ERREMINTA
MAKINA
INSTITUTUA**



HIZKUNTZAK UZTAILEAN Ikastaro trinkoak

HIZKUNTZAK Alemana, Frantsesa, Ingelesa

MAILAK Oinarrizkoa, Erdi-mailakoa, Aurreratua, Teknikoa, Komertziala, Itzulpena (Eskaren arabera)

IRAUPENA 44 ordu (2 egunero), uztailaren 1etik 30era

ORDUTEGIA 8:00ak eta 14:00ak bitartean

IRAKASLEGOA Natiboa

IKASLEGOA 15 urtetik gorakoa

MATRIKULA Ekainak 25a arte (Plaza mugatuak, talde txikiak)

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA

Erraminta Makina Institutua
Hizkuntz saileko arduraduna
San Roke Auzoa, 1
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: (943) 74 41 32 - Fax: (943) 74 41 53
9:00 - 13:00 14:30 - 17:30



AZKUE

1943. urtean jaiotako 75 pertsonak 50. urteurrena ospatu zuen pasa den larunbatean. Meza entzun ondoren egun horretako oroigarri gisa honoko argazki hau atera zuten. Gero, lagunarteko bazkaria izan zuten, orkestina eta guzti. Giro ezin hobean igaro zutela eguna adierazi digute bertan egon ziren batzuek. Datoren urtean ere 50 urte beteko dituztenak urtemuga ospatzeko bilduko dira.

Trikitilari eskolako haur guztiek hartu zuten parte joan zen ostiralean Olaizaga polikiroldegian ospatu zen kurso bukaerako jaialdian. Ikasleek taldeka eta bikoteka jo zituzten fandango, porrusalda eta arin-arinak, batzuk kantatuta eta beste batzuk kantatu gabe. Ikasleen ostean irakasleen txanda izan zen.

Jaialdiaren bukaeran, Haritz dantza taldeko lau bikotek fandango eta arin-arinak dantzatu zituzten trikitilari eskolako haurren pandero eta soinuaren laguntzaz.



IRAKASLE ESKOLA

E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1993-94 ikasturterako aurreinkripziopea zabalik dagoela.

Espezialitateak:

- Haur -Eskola
- Euskal Filologia
- Ingeles Filologia

Informazioa

Irakasle Eskola. Tfnoa: (943) 71 41 57



Erretailak

GAILUR

Teilatu konponketak

☎ 74 34 86

☎ 75 15 33



XIRULA

Hanburgesia

Hanburgesak

Sandwichak


Saltxitxak

Solomoa

Txanpiak plantxan

Bokatak

Plaza txikia z/g Tel: 74 36 95



1993. URTEKO UDAL AURREKONTUAK

Hilaren hasieran, 1993. urteari dagozkion Udal aurrekontuak onartu zituen Udalbatzak. EAJ, PSE eta EAren aldeko botuak jaso zituen Udal aurrekontuak, EA puntu guztietan ados ez egon arren. HBko lau zinegotziek kontrako botua eman zuten eta aurrekontuei zenbait aportazio egin zizkieten. Gainontzeko alderdiek ez zituzten HBren proposamenak onartu.

SARRERAK

Zerga zuzenak	153.248.034
Zeharkako zergak	18.000.000
Tasak eta beste sarrera batzuk	159.647.500
Transferentzia arruntak	517.178.908
Ondarezko sarrerak	6.087.000
Inbertsio errealean inorenganatzea	120.000.000
Kapitalaren transferentzia	180.838.558
GUZTIRA	1.155.000.000


GASTUAK

Pertsonal gastuak	290.152.118
Zerbitzuak eta ondasunen erosketak	150.466.000
Interesak	104.194.657
Transferentzi arruntak	186.098.409
Inbertsio errealak	382.147.531
Kapital transferentziak	1.914.000
Finantz aktiboen aldaketa	13.509.249
Maileguen amortizazioa	26.518.036
GUZTIRA	1.155.000.000

GASTUEN AURREKONTUA SAILEZ SAIL

- HAZIENDA
- FINANTZAK

% 16




Pertsonal gastuak	26.875.960
Bulegoko altzariak eta ekipamendu informatikoa	3.550.000
Dietak eta bidaiak	150.000
Maileguen interesak	104.194.657
Maileguen amortizazioa	26.518.036
Diputazioari zorra	13.509.249
Debegesa enpresei transferentzia	5.100.000
Familiei diru itzulpenak	800.000
Entitatearen alde bilketa zerbitzua	3.400.000

GUZTIRA **184.097.902**

- BARNE SAILA

% 11




Pertsonal gastuak	100.714.000
Bulego gastuak	7.500.000
Eraikin eta lokalen aseguruak	2.500.000
Karguen dieta, garraio eta protokolo gastuak	1.200.000
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	14.755.000
Ondasunen zerrenda, azterketa eta adjudikazioa	4.000.000

GUZTIRA **130.669.332**


- EUSKARA

% 2




Pertsonal gastuak	3.065.387
Udal Euskaltegia	6.237.357
SIADKO	575.000
Irabazte xederik gabeko Erakundeei	7.600.000
Aubixa, Baratzte,	1.500.000
Ekipamendu informatikoa, zenbait obra	1.035.893
Bulego gastuak, argitarapenak	1.575.000

GUZTIRA **21.588.637**




- GIZARTE PRESTAKUNTZA
- ONGIZATEA
- OSASUNA
- AZOKA



Pertsonal gastuak.....	94.569.929
Drogomenpekotasunak	650.000
Etxez etxeko laguntza programa.....	10.000.000
Pobreziaren kontrako plana	3.500.000
Kale garbiketa	30.812.430
Zabor bilketa.....	34.436.622
Kontsumo bulegoa	1.500.000
Irabazte xederik gabeko erakundeei	1.600.000
Kanposantuko obrak	2.500.000
Merkatu Plazako obrak.....	4.000.000
Pintada eta iragarkien garbiketa.....	6.000.000
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	8.150.000
Zaharren Biltokia	980.000

GUZTIRA.....198.698.981


- KULTURA
- GAZTERIA
- KIROLA
- HEZKUNTZA



Pertsonal gastuak.....	17.804.666
Herriko jaiak	27.450.000
Pelikulen alokera eta garraioa.....	3.000.000
Kiroldegiko ustiaketa hitzarmena	5.400.000
Kirol ekintzak.....	1.628.000
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	22.675.000
Musika Fundazioa	30.000.000
Eskolak.....	14.900.000
Ikasbat.....	3.880.000
Guass diskoteka.....	3.600.000
Kultur, kirol... elkarteak.....	14.927.000
Auzoetako jaiak	3.500.000
Elizako obrak.....	10.000.000
Liburutegia.....	7.300.000
Kultur etxeko altzariak	3.000.000
San Migeleko pilotalekua estaltzea	13.443.971
Mintxetako kirol instalakuntzaren zati bat.....	250.439.024

GUZTIRA432.947.661

- HIRIGINTZA
- URA
- KALEAK
- NEKAZAL LURRAK



Pertsonal gastuak	47.121.844
Argi indarra: Kontsumoa, motobonbak eta konponketa	23.000.000
Alkantarila sistema.....	5.000.000
Kaleen konponketa	4.500.000
Ondasun arruntak eta zerbitzuak.....	12.583.000
Albitxurira ura ekartzeko asmoa	3.500.000
Urruzuno auzoko uraren irteera obra.....	2.500.000
Alde zaharraren argiztapena	3.910.000
Foruen Plaza 6-ko lokalen 2. ordaina	15.000.000
Foruen Plaza 6ko bulegoen egokitzapena	11.000.000
Albitxuri aldeko lanak.....	1.546.970
San Roke auzoko bidea.....	1.500.000
San Pedro zelaiko parkearen hobekuntza	2.500.000
Mendi Nekazaritza	20.111.673
Baserrietarako bideen hobekuntza	3.000.000
Santa Anako (Gabilondo) aparkalekua.....	4.200.000
Autobus geltokietarako markesinak.....	5.000.000
Andikanorako bidearen hobekuntza	2.000.000
Beste inbertsio batzuk	17.110.000
DEBEMEN	1.914.000

GUZTIRA186.997.487

Juanito Arrieta eta Agapita Soraiz:

"Gu milionariuak gara; ez dirutan, baina bai ondasunian"

Juan eta Agapita 1943.eko ekainaren 3an ezkondu ziren Altzolako parrokian. Bazkaria "Naparkuan" izan zen. Hil honen 3an beraien Urrezko Eztaiak ospatu

zituzten seme-alaba, eta bilobez inguraturik. Honetaz eta beste zenbait gauzataz berba egin ahal izan dugu bikote atsegín honekin.

-Zuen Urrezko Eztaiak ospatzeko jai handia egin omen zenuten. Kontatu piska bat nola joan zen eguna...

Juanito: -Eguna oso ederra izan zan. Dena oso ondo irten zan... Ordu batetan meza izan genuen Santa Klaran; bi apaizek emanda, bata gure lagun bat eta bestea Don Pedro. Gure 10 bilobak guk jakin gabe dantzak eta bertsoak prestatu zituzten. Gero San Pedrorra joan ginen denok bazkaltzera. Bazkal ondoan dantzaldia izan genuen, eta guk eman genion hasiera hala eskatu zigutelako...

- Noiz eta nola ezagutu zenuten elkar?

Juanito: - Uda partian ni apaldu ondoren lagunekin joaten nintzan kafia hartzera Altzolara eta han zegoen Agapita kafetegi batean zerbitzen... Gero gerra ostean ni administradore egon nintzan Altzolako bainuetxean, eta Agapita ere bainuetxean zegoen neskame. Eguneroko tratuakin, hartuemanakin, eta abar...

- Zenbat denbora ibili zineten nobio bezala?

Agapita: Bi urte... Hasieran isilka ibiltzen ginen. Orduan gaizki ikusita zegoelako nobioak etxe berdinean egotia. Gero, ni Donostiara joan nintzan



AZKUE

"Hasieran ixilka ibiltzen ginan. Orduan gaizki ikusita zegoelako nobixuak etxe berdinean egotia"

gizon inportante baten laborategian telefonista lana egitera. Eta Juanito etortzen zen jaixan bisitatzera.

Juanito: -Arratsaldia elkarrekin pasau, eta ni, iluntzian etxera.

-Nola gogoratzen duzue zuen ezkontza eguna?

Agapita: - Elegantia ez zan izan, baina... Juanito hainbeste urtekin solterua eta nik ere 28 urte... osabak eta lehengusu denak inbitatzeko ilusioa gendun. Ehun edo izan ginan. Gurasoak eta aitxixak demaseko poza izan zuten.

- Zer iruditzen zaizkizue gaur egungo gizon emakumeen arteko harremanak?

Agapita: -Orain ezagutzen dira gaztiak eta ibiltzen dira hara eta hona eguna pasatzera eta dana. Orduan ezer ere ez... Ni hotelean nauanian ordu batzuk egoten ginan elkarrekin gero Donostiara joan nintzanian, bai, domekan libre naukan eta orduan igual juaten ginan Igeldo aldera. Baina behin ere ez eguna pasau eta-hola, pentsatu ere ez. Orduan ezergatik galtzen zenduan izen ona

eta fama txarra hartzen zenduan.

Juanito: -Gure mentalidadia lehengoa da eta gaur egun ikusten diazen gauzak... Gu erlijio katolikoan jaio ginen, hala erakutsi ziguten eta hala segitzen dugu.

Agapita: -Lehengua gehixegixa zan, baina oraingua ere exajerazio bat da.

- Edozein bikotetan bezala, zuek ere izango zenituzten momentu txarrak... Zein da zuen sekretua arazoei aurre egiteko eta 50 urteren ondoren hain ondo egoteko?

Juanito: - Bai, bai... Dudarik gabe, gaiztua izango dala beixatzen zait neri holakorik ez izatia. Eta guk ere eduki ditugu eta daukaguz gure txokiak eta holakuak.

Agapita: -Beti, maitasuna eta fedia laguntza dira.

-Azken 50 urte hauek elkarrekin igaro ondoren zer balantze egiten duzue?

Agapita: -Gu gustora gaude ezkondu ginelako, familia ederra daukagu... askotan esaten dugu: gu milionariuak gara; ez dirutan, baina bai daukagun ondasun ederragatikan. Lau seme-alaba daukagu eta hamar biloba.

Agur Miren Barandiaran

Antton Izagirre

Dentista



- **Zergatik da hain mingarria hagin-neko mina?** - Ahoan nerbio asko ditugulako. Haginaren nerbioa lehenengo inflamatu eta usteldu egiten da, eta gero infekzioa hezur-rean ematen da. Horregatik da hain mingarria.

- **Hagineko minarentzat erremedio onena?** - Minarentzat analgesikoa eta infekzioarentzat antibiotikoa.

- **Beldurrez sartzan al da jendea kontsultara?** - Batzuek bai, batez ere 30 eta 50 urte bitartekoak. Lehen enpasteak egiteko teknika nahiko txarra zen eta adin horretako pertsonak oraindik gogoan dute.

- **Zer da kaltegarriena haginenzat?** - Azukrea. Haginak des-mineralizatzen ditu.

- **Eta onena?** - Garbitasuna eta janari eta edari naturalak hartzea, azukrea eta antzeko gehigarririk gabekoak.

- **Gehiegi deskuidatzen al ditugu haginak?** - Minik izan ezean edo itxuraz ondo badaude gehienetan ez zaie kaso handirik egiten. Prebentzioari garrantzia handiago eman beharko litzaioke.

- **Diruzale fama omen daukazue dentistek...** - Gure lana arte-sanala da. Aho eta hagin bakoitzak konponketa berezia behar du. Haginak zaintzen dituenarentzat ziur ez dela oso garestia dentistarengana joatea.

- **Dentista ez bazina zer gustatuko litzaizuke izatea?** - Beste espezialitate bateko sendagilea.

- **Zaletasunak?** - Mendia eta footing egitea.

- **Musika klasikoa ala rock-a?** - Musika klasikoa.

- **Telebista ala irratia?** - Irratia.

- **Ikusi duzun azkenengo pelikula?** - "Regreso a Howards Ends".

- **Zure ametsa?** - Osasuna eta maitasuna eukitzea.

- **Nora joango zinateke oporretan?** - Pirineotara.

Aitor Zabaleta

BERTSOTAN

Ehiza bai ala ez?

Doinua: "Loreak udan"

Bereiztu beharra daukagu ehiztari-eskopetero, lehenak natura digu maite bigarrenak ez, espero, txoritxoak gose direnean elurtea eta gero, gustora aprobeztatzen dute hau izateko urtero.

Zuek ehiztariok nahiz legea errespeta, arrazoiren bat izango al da gaur goserik ez da eta. Nahiz eta zuek ezin duzuen, (alferrik da berriketa) arren semeari ez erosi hiltzeko den eskopeta.

"Arriola"

Bertso eskola



Done Frantzisko, 27
☎ - Fax 74 32 06
20870-ELGOIBAR (Gipuzkoa)

PINTURAK

- Fatxadak
- Komunitateak
- Mota guztietako lanak

San Roke 30 behe Tel. 74 36 52

Nahaste-Borrastea astelehenean ospatuko da

Datorren astelehenean, hilak 21, Kimetz elkarteak antolatuta, Nahaste-Borraste kirol eta umore lasterketa ospatuko da. Arratsaldeko 7etan Plaza handian hasiko da lasterketa alebin eta infantilentzat. Lehendabizi 3 kilometro egingo dituzte txirrinduaz, gero, kilometro erdi 10 kiloko zakuaz eta azkenik, kilometro bat saltaka. Segidan nagusien lasterketa hasiko da. Lehen 7 kilometroak bizikletaren gainean burutuko dituzte, ondoren 25 kiloko zakuarekin kilometro erdiko distantzia eta bukatzeko kilometro t'erdi saltaka. Lasterketaren ondoren, partaide guztientzako afaria egongo da Kimetz elkartean.

Santi Maiztegi Euskadiko txapelketan korrituko du

Santi Maiztegi, Gipuzkoako txapelketan 10.000 metroko lasterketan urrezko domina lortu ondoren, aste-bukaera honetan jokatu den Euskadiko atletismo txapelketan parte hartuko du. Gogor dabil Santi azken aldi honetan. Izan ere, maiatzaren 30eko Mendaroko Krossean garaile izan zen eta Beasainen izandako Kaskara bilketan bigarren postua egin zuen.

XVI. Mus Txapelketa

La Union elkarteak bazkideentzako XVI. mus txapelketa antolatu du datozen hilak 29 eta uztailak 1, 6 eta 8rako. Hilaren 29ko txapelketa 9etan izango da eta izen ematea ordubete lehenago egingo da.



Josu Merino:

"Txapeldunei begiratzuz ikasten saiatuko gara"


-Deba Beheko eskalada txapeldun zara. Nola ikusten duzu zure burua Euskadiko txapelketan? -Puf, oso "txungo". Euskadiko txapelketan maila oso altua da. Kategoria handiko eskalatzaileak egongo dira, elitea. Hemen inguruan Eibarko Andoni Ansola eta biok nahiko berdintsu gaude. Bergarakoak oso onak dira eta Patxi Arozena, Espainiako txapelduna zer esanik ez. Gu ikustera eta ahal bada zerbait ikastera joango gara.

-Zein ezaugarri fisiko garatu behar ditu eskalatzaile batek?

-Besoetan indar handia behar da. Pultsoa eta elastizitatea ere funtsezkoak dira. Elastizitateari esker, indar gutxiago gastatzen da; lan gutxiago egin behar dute besoek.

-Eskaladan trebatzeko, non ibiltzen zarete? -Hemen inguruan, Atxarten, Araoz-en, Etxaurin... Araoz potentzia lantzeko aproposa da, bideak motzak dira....

Atxarten, aldiz, bideak luzeagoak eta samurragoak dira, erresistentzia lantzeko batez ere. Kotxea daukagunean, urrutixeago joaten gara, Huescara askotan. Hemen ere erresistentzia lantzeko leku aproposak



daude. Ba-tzutan, eskapadak ere egiten ditugu, Picos-era edo Piriñoetara.

-Atxarteko auziari buruz, zer iritzi duzu? -Ekologikoki astakeria bat da. Hor gertatu dena izan da, ugazabek eskalatzaileen aurka jarri dituztela langileak eta istilu asko gertatu direla beraien artean. Interes asko daude tartean.

-Eskalada, modan al dago?

-Badirudi. Lehen ez zen oso eza-guna baina azken aldian jende asko gabiltza. Ni ere horrela hasi nintzen Aitor eta Pablok egiten zutenari begira. Gero, zaletu egin nintzen eta orain gero eta gehiago ibiltzen naiz. Bizio bat da nerretzat.

● Adina: 21.

● Eskalatzerakoan maniarik?

Ez..Bueno kamiseta kentzen dudanean motibatuagoa eskalatzen dut.

● Hobbyrik? Eskalada, bizikleta, irakurri eta juergak ere bai.

● Haitza ala izotza eskalatzeko? Biak.

● Elastiko motzak ala luzeak? Luzeak eta bero dagoenean, motzak.

IDARRAGA
KAPEAK

Eguneroko errealdiak

San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39

INTXAURRAGA

zerbitzu aukeratua

•••• SECUC ••••

San Roke 11, Tel. 74 18 37

magu's

ILEAPAINDEGIA

EDERGINTZA

San Roke 6 behe tel. 74 34 91

ZALDUA

ITURGINTZA

GAS ETA BEROGAILU

INSTALAKUNTZAK

Urasandi 26. Tel: 74 05 30


Dena prest Euskadiko Eskalada Txapelketarako

Larunbat honetan, hilak 19, Morkaiko Mendizale Elkartek eta Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta, Euskadiko Eskalada Txapelketa jokatu da Olaizaga Kiroldegian. Udal rokodromoan margotu eta zabaldu egin behar izan dute Euskadiko txapelketa bezalako proba bat bertan egin ahal izateko.

Josu Merino, Deba Arroko txapeldunarekin batera, Euskadiko eskalatazaille onenak hurbilduko dira Elgoibarrera. Goizez, lehendabizi, txapelketako finalerdiak jokatu dira eta sailkatzen direnek, arratsaldeko 6,30etatik aurrera, finalak jokatu dituzte. Txapelketan 40 inguru eskalatazaille hartuko duela parte kalkulatu du antolakuntzak

eta jendearen aldetik ere, partaidetza handia izan dela uste dute.

Gauerako, berriz, ikuskitu berezi bat prestatu dute antolatzailleek. Kiroldegiko Udal rokodromoan, Estatuko 4 eskaladore hobereenek, Patxi Arozenak (iazko Espainiako txapelduna), Anna Ibañezek (iazko Espainiako txapelduna), Txema Gomezek (Espainiako bigarrena 1992ean) eta Carles Brescok (Espainiako laugarrena 1992ean) argi eta soinu lagunduriko dantza eskalada saioa eskainiko dute. Ikuskizuna larunbatean izango da Kiroldegian gaueko 11,30etan. Sarrera 300 pezetakoa izango da 14 urtetik gorakoentzat, eta dohainikoa 14 urtetik beherakoentzat.



AZKUE

Finalak arratsaldez jokatu dira.



KENSINGTON

UZTAILEAN GOGOR EKIN INGLESA ETA FRANTZESARI Matrikulazio epea zabalik daukazu !

Mailak:

1. mailatik (oinarrizkoa) 11. mailara (aurreratua).
Sarrerako azterketaren arabera.

Taldeak:

- Mintzamen praktikak
- Kanpo komertzioa
- Itzulpena (bi hizkuntzetara)
- Literatura,
- Errekuperazioak,
- Oinarrizko mailak haurrentzat.

Iraupena:

A - Ordu bete egunero (22 ordu)
B - Bi ordu egunero (44 ordu)

Hiru egun dohainik izango dituzu.

Ordutegia: Eskaeren arabera.

Adina: Adin guztiak.

Ikastaroa bukatzean asistentzia agiria lortuko duzu.




GIPUZKOAKO
HIZKUNTZ IRAKASLE
ELKARTEKO BAZKIDE

P. Muguruza 8. Tel.: 74 02 36



URASANDIKO FUTBITO TXAPELKETA



Aurtengo Futbito Txapelketak ezagutzen du bere irabazlea. Joan zen igandean, emozioz beteriko final batean A.R. Egañakoak irabazle suertatu ziren kosakos taldea menperatuz. Hala ere, ez zen garaipen erraza izan, partidua amaitzeko ordu laurden bat falta zenean Egañakoak 4-1 galtzen baitzuten. Baina, azken esfortzu bat eginez eta kosakoen lasaitasuna medio, launako berdinketa eta prorroga behartzea lortu zuten, inork espero ez zuenean. Luzapenean sartutako beste gol batek garaipena eman zion San Pedro auzoko talde honi, kosakoek zer gertatu zitzaizen ez zekitelako. Azken finean, 5-4 eta sari nagusia A.R. Egañarentzat.



Kopakoa igandeko lehen finala izan zen eta giroa berotzeko partidua ezinhobea. Arroak eta Universidad de Chile taldeek futbito partidua polit bat eskeini zieten han bildutako ikusle guztiei. Partiduari dagokionez, bi taldeek markagailuan aurrea hartzeko aukera asko izan arren, lehen zatia hutsanako berdinketaz amaitu zen. Bigarrenak ildo beretik jarraitu zuen eta prorroga ezinbestekoa zirudien Arroak-ekoen gola etorri zen, bukaeran garaipena emango zien gola. Universidad de Chilekoek ezin izan zuten markagailu horri buelta eman eta bigarren urtez kopako azpitxapeldun izatearekin konformatu behar izan zuten. Arroakekoentzat (argazkian), beráz, aurtengo kopako saria.



UDAL DEBABE
EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA
 NAFARROA ENPARANTZA, 2
 74 27 31
 20870-ELGOIBAR

UDA HONETAN
ESAIOSU BAIETZ EUSKARARI

PUBLIZITATEA
74 41 12

- Ikastaro trinkoa:** 5 ordu egunero
- Iraupena:** Ekainaren 28tik uztailaren 23ra
- Matrikula epea:** Ekainaren 14tik 25era

Plazatik plazara bizikleta gainean

Alberto Zelaia eta Jabi San Martin "abenturero" elgoibartarrak, Moskura abiatuko dira datorren asteartean, hilak 22. Beti izan dute Moskura joateko gogo. Baina ez edonola. Albertok eta Jabik bizikletaz zeharkatuko dute europar kontinentea Moskuko Plaza gorrira heltzeko.



Albertok eta Jabik urtero egiten dute bidaiaren bat bizikletaz.

-Zenbat kilometro daude "Plaza handitik Plaza gorrira"?

Alberto: 5.500 kilometro.

Jabi: "Kuentakilometros" a jarri behar diogu.

A: Lehen ere ipini genion, baina desastre bat izan zan. Gelditu egiten zan.

-Bizikletak bidaia hain luzerako egoki prestatuko al dituzue?

J: Errekonozimendu medikua behar dute.

A: Nahiko "hecho polvo" daude. Orain, gauzak erroteko parrillak jarriko dizkiegu.

-Aurtengoa, zenbagarren abentura elkarrekin?

A: Laugarrena. Hiru abuztu daramagu urtetzen batera.

J: Lehenengo aldiz gogoratzten naiz, Plazan geundela, julixuaren 28an, bixok bakarrik, aspertuta. Eta horrelako batian, esan gendun: 'Zer egingo dogu abuztuan?'

A: Eta Jabik esan zaban: 'guazen Valentziara'. Eta horrela, egun baten Moskura jun behar ginala, eta...

-Noiz helduko zarete Moskura?

A: Hilabete batean han egotia espero dogu.

J: Bai, ze horrela jun izan geranian, beti, jarri dogun fetxa baino lehenago heldu gera.

Poloniaraino badakigu zer dauan bidian. Baina, Errusian, batek daki!

A: Esaten digute gosia pasatuko dogula, lapurretan egingo digutela...

-Eta non egin behar duzue lo?

A: Zakuan.

J: Edonun, tokatzen dan tokixan. Marsellan ere, horrela ibili ginan, hondartzetan, zelaixetan... Orduan ere garbitxu behin garbitxu giñala uste dot.

A: Nahiko zikinak etorriko gera seguruen.

-Ze ekipaia daramazue?

A: Kulote bat, praka motzak hiru edo, niki batzuk, txandala eta zapatilak. Eta zakua.

J: Nik ere berdin.

-Zenbat kilometro eguneko?

A: 220 bat.

J: 200 pasauta.

A: Egunian 300 kilometro ere egin izan ditugu. Gehixena goizez egiten dogu eta arratsaldian kilometro batzuk egin, gelditu, ura edan, jan...

J: Ur asko edaten da. Pasa dan urtian, 10 litro edaten genituen egunero.

-Errusian turismo egiteko asmorik?

A: Nik Transiberianuan ibili nahi dot. Haura bai abenturia!

Bueno ez. Heldu eta lehenengo gauza, ikurriñarekin foto bat atera eta vodka botila edan.

-Buelta noiz?

A: Debako jaixetarako.

-Nola egingo duzue buelta?

A: Trenian edo abioian.

J: Diruaren arabera.

-Zenbat diru eraman behar duzue?

A: Lortzen dugunaren arabera.

J: Ba, 400.000 bat bai.

-Entrenamendua gogortu al duzue?

A: Jun aurretik hau nekatu egin behar da!

J: Hau ere, zoruen pare dabil!

A: Astian hiru egunetan ibiltzen naiz. Buelta nahiko gogorrak egiten ditut. Forma hartu behar da.

J: Gainera pisu asko galtzen da.

A: Nik 15 kilo kenduko ditut seguruen.

J: Nik ere 10 bat kenduko ditut.

-Hurrengo abentura?

A: Ruta Karakhorum bizikletaz egiteko gogoa daukat, baina...

J: Nik momentuz nahikua daukat honekin. Baina gustatuko jatan Asia alde-
ra jutia.



Eliz abesbatza: ia ehun urtetako lana

Ziur ez daki inork noiz jaioren eliz abesbatza baina zaharrek diotenaren arabera, ehun urte gutxienez baditu. Datorren urtean, 1994.ean, ehunurteurrena ospatzekoten dira eliz abesbatzako kideak. Oraingoak ez badira ere abesbatzaren garairik onenak proiektuarekin aurrera sendo jarraitzeko asmoa dute eta kantatzea gustoko duten gazteak bertara batu daitezten animatu nahi dituzte.

Gaur egun eliz abesbatza bezala ezagutzen duguna duela 30 bat urte sortu zen. Lehenago gizonezkoek eta emakumezkoek bakoitzak bere aldetik kantatzen zuten. Gizonezkoek, koroan eta, emakumezkoek behean. Gizonezkoen abesbatzaren lehen zuzendaria parrokiako organujole zen Lizarriturri musikagile ezaguna izan zen. Ondoren Bereziartua organujoleak hartu zuen errelebu eta hau hiltzean, bere seme Ascensiok. Emakumeen abesbatzaren lehenetarikoa zuzendaria Don Ramon parrokoa izan zen eta ondoren Kontxita Santolaia. Orduarte, elizkizunetan bakarrik kantatzen zuten.

1960. urte inguruan, ordea, bi abesbatza ezberdin zirenak, bat egin eta gaur egun ezagutzen dugun eliz abesbatza sortu zen; gizon eta emakumez osatutakoa, alegia. Sasoi honetan Felix Lodosok hartu zuen zuzendaritzaren kargua. Lehen kontzertua, gizon eta emakumezkoen abesbatza bezala, 1978. urteko abenduaren 3an eman zuten Donostiako basilikan. Probintziako abesbatza ezberdin batek hilerok kantatzen zuen meza zen kontzertu hau. Data honetatik aurrera, elizkizunetaz gain, herritik kanpo kontzertuak ematen eta ihardunaldi ezberdinetan

parte hartzen hasi ziren. 1979an, Oñatin antolatuta ziren I. Musika Ihardunaldietan parte hartu zuten. Aita Madinaren Arantzazu poema kantatu zuten bertan Donostiako Kamara Orkestarekin batera. Garai hartan 100 edo 105 kidek osatzen zuten abesbatza eta han hemenka ematen zituzten kontzertuak oso arrakastatsuak izan omen ziren. Elgoibarko, Bergarako, Legazpiko eta Oñatiko zuzendarien ekimenez gaur egun "Topaketak" deitzen denaren lehen pausuak eman ziren. Plazarik plaza entzute handia hartu zuen garai hartan gure herriko abesbatzak.

Gipuzkoa osoan kantatu du eliz abesbatzak eta kanpoan ere bai: Vianan, Burgosen, Oliten, Errioxan, Cordoban...

Pasa den urtean eliz abesbatza zuzendaritzarik gabe gelditu zen eta oraindik ez du zuzendari finkorik. Konpromezuzko saioetan, Mutrikuko eliz abesbatzaren zuzendariaren laguntza izaten dute.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1894
Kideak: 46
Lokala:
 Parrokiko korua
Entsaiuak: asteartetan
Zuzendaria: ez dago



Jantziak estreinatu zituzteneko garaian ateratako argazkia da hau. (1991)

AZKUE

UDA BERRI
ELGOIBAR

BATZOKIA
 Jatetxea-Taberna
 P. Muguruza 8. Tel: 74 08 21

ANCHUSTEGUI S_a
ZERAMIKAK
 Erakusketak eta bulegoa:
 Antonio Arrillaga, 6-8
 behe
 83 Postakutxa
 Tel. 74 33 44 - 74 06 92
 Fax 74 37 11
 Biltegia:
 Arregitorre, 10 - 14 behe
 Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
 Gipuzkoa

Jende gutxi musika klasikoko kontzertuetan

Pasa den astebukaeran, Musika eta Dantza Fundazioak antolatuta, *Franz Danzi* haize boskotea eta *Arkadiusz* soka laukotearen kontzertu bana ikusteko aukera izan genuen. Oso jendegutxi urreratu zen Herriko Antzokira bi musika talde hauek ikustera. Dirudienez, elgoibartarrok ez dugu orkestra musikarako zaletasun handirik.


Arkadiusz laukote poloniarra, bi bibolin, biola bat eta biolontxelo jotzaile batez osatua dago eta kontzertuan *Dvorak*, *Arriaga* eta *Mozarten* obrak jo zituzten. *Franz Danzi* boskotea, berriz, herrialde ezberdinetako musikari garrantzitsuek osatzen dute eta klasikoa zein bangoardiako musika jotzen dute.



AZKUE

↳ Arkadiusz laukote poloniarra Herriko Antzokian.

Soka dantza Juan Antonio Urbeltzen ikuspuntutik



AZKUE

↳ Urbeltzek, herrialde ezberdinetako soka dantzak konparatu zituen.

Pasa den asteko asteazken arratsaldean, Juan Antonio Urbeltz ikerlari ezagunak Soka dantzari buruz hitz egin zuen Kultur Etxean. Urbeltz, Ikerfolk, folklorearen azterketa helburutzat duen erakundearen zuzendaria da. Saioan, Juan Inazio Iztuetak 1824. urtean idatzi zuen "Gipuzkoako dantzak" liburuaren interpretazioak egin zituen. Urbeltzen emazte eta semeak, Mari Angeles Arregik eta Mikel Urbeltzek, soina eta bibolinaren laguntzaz, Europako soka dantza ezberdinak jo zituzten. Guztira lau soinu ezberdin interpretatu zituzten eta Urbeltzek herri ezberdinetako soka dantzen arteko ezberdintasunak aztertu zituen.



MAPFRE
ASEGURUAK
Mari Luz Rojo

Mota guztietako aseguruak zure esku

San Frantzisko, 34 Telf: 74 05 82 - 74 14 04



KAFETEGIA **KAFIA** ELGOIBARR

Kafetegia

19 *Larunbata*

10,00 EUSKADIKO ESKALADA
TXAPELKETA

FINALERDIAK
Tokia: Kiroldegia

18,30 EUSKADIKO ESKALADA
TXAPELKETA

FINALAK
Tokia: Kiroldegia

23,30 ESKALADA-DANTZA
SAIOA

Eskalatzaileak: Patxi Arozena,
Anna Ibañez, Carles Bras-
có eta Txema Gomez.

Tokia: Kiroldegia
Sarrera: 300 pta.
(14 urtetik behera sarrera dohain)
Antolatzailea: Morkaiko eta Udal
Kirol Zerbitzua

19,00-21,00 ERAKUSKETA

Jose Menbrilleraren eskulanak
Tokia: Kultur Etxea
Azken eguna hilak 27a.

21 *Astelehena*

18,30 EMAKUME TALDEAREN
ASANBLADA IREKIA

Tokia: Kultur Etxea

19,00 NAHASTE BORRASTE

Alebin eta infantilen lasterketa
Segidan nagusien lasterketa
Tokia: Plaza handia
Antolatzailea: Kimetz elkartea

23 *Asteazkena*

9,00-12,00 IVAP-en BILERA

Gaia: Euskalterm
Tokia: Kultur Etxea

25 *Ostirala*

19,30 HITZALDIA
ELGOIBARKO ALKOHOLIKO
ANONIMOEN ZORTZIGARREN
URTEURRENA

Gaia: Alkoholismoa
Tokia: Kultur Etxea

**ALTZOLAKO
SAN JUAN JAIAK**

23, SAN JUAN BEZPERA

14,30 Kanpai jotzea eta txafli-
gubotatzea

19,00 Meza eta Salbea

19,30 San Juan arbolaren
landaketa

23,00 San Juan suak

23,30 "Konbi" eta dantza

23 SAN JUAN EGUNA

11,00 Meza San Juanen omenez

12,30 Buruhandien kalejira
trikitrilariet lagunduta

18,00 Pelota partiduak
auzolaneko frontoian

23,00 "Konbi"

25 SAN JUAN TXIKI EGUNA

13,00 Trikitrilarien kalejira

15,00 Bazkari herrikoa

24,00 "Zokoan" eta "Octubre
negro" ren kotzertua

26 LARUNBATA

13,00 Santurtziko arrainak

17,00 Joku herrikoiak

18,00 Txokolatea

19,00 Buruhandien kalejira
eta ondoren futbolen txapelketa

23,00 Berbena eta Eskobaren
jokua

Jaien amaiera



Artegi LEHIAKETA

Ekaineko galdera: Gure herritik hain zikin pasatzen den Deba
ibaia, non jaio eta hiltzen da?.....

IZEN-ABIZENAK.....

HELBIDEA..... TEL:.....

Mikoondas bat zozketatuko dugu zuzen erantzutan duzuenon artean. Pertsona bakoitzeko **erantzun
bakarra** onartuko dugu. (Anima zaitetze eta ekarri erantzuna BARREnera. Nafarroa enparantza 2.)

Lana

Udan klase partikularrak emateko prest nago OHOk haurrei. Magisteritza titulua eta ingenieritza ikasketak ditut.
74 28 53 Alazne.

Iturgintza eta berogailu lanak egiten ditut etxebizitzetan. Prezio merkeak.
74 41 94. Sanchez.

Programatzaileak, partikular, enpresa eta komertzio-entzako aplikazio informatikoak egiten ditu. Proiektua aztertzeko prest gaude inolako kosturik gabe.
74 25 35

COU, EFP eta Batxiller Tekniko eta Moduloetako ikasleei dibujo lineal-industrialeko klaseak ematen dizkiet.
Iñaki: 74 34 01

Ingeniero industrialak **matematika, fisika eta kimikako klaseak** ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.
Tel.: 74 13 11. Javier

Magisteritza eta administrari tituludun irakasleok, O.H.O., L.H-1 eta euskarako klase partikularrak ematen ditugu.
Deitu 74 04 13 telefonora.

Salerosketak

Berritutako buhardila bat salgai. San Inazio 5
74 35 09 - 74 31 66

Ezkontzeko soinekoa salgai. Buruko apaingarria eta kankanarekin. Luzea, salmoi kolorekoa, manga motza. Neskaren neurriak: luzera: 165 zm, bularra: 85 zm, gerria 68 zm. Erdi prezioan: 80.000 pta. Ikusi edo probatu nahi izanez gero deitu **76 17 81 edo 945-24 32 55 tel. etara.**

Opel Corsa Cyti, BI-AK saltzen dut. Hobekuntzekin. Deitu lan orduetan.
94-6201918 ra (Gorka).

Gimnasia egiteko tresna saltzen dut. Muskuloak eta hankak indartzeko oso egokia. Prezioa negoziatzeko.
Aitor: 74 22 74 Egun osoz.

Arregitorren garajea saltzen dut. Prezio interesgarria.
Tel: 74 27 39

Paseoko bizikleta saltzen dut. "Peugeot" kanbioduna.
Prezio onean. Tel: 74 22 67 Myriam.

Organu HAMOND bat. 8 baxu, bi teklatu eta sekzio ritmikoduna. 50.000 pta.
Alberto: 74 14 94

Garaje bat saldu edo alokatuko genuke. San Roken (pista beltzean).
74 08 79 Julian edo Maria Jesus

Garaje bat saltzen dut Santa Ana kaleko 2. portalaren alboan. Harremanetarako deitu, **74 06 56 edo 74 42 47** telefonoetara.

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mari. Tel: 74 21 35-74 22 10**

FORD FIESTA zuri bat saltzen dut, BI-AB. Prezio merkea.
Tel: 74 28 77. Jose

Egunkaria


Deba behean lan egiteko pertsona bat behar dugu:

Baldintzak:

- Kotxea edo motorra izatea.
- Euskaraz jakitea.
- Harremanetarako erraztasuna izatea.

INTERESATUAK DEITU ASTELEHENA ETA ASTEARTEAN 74 13 41 TELEFONORA

XAVIER BIDAIAK




TXEKIAR ERREPUBLIKA-ESLOBAKIA-BUDAPEST
93-8-1 / 93-8-1575.000 pta.
KORSIKA
93-8-16 / 93-8-31 79.000 pta.
MAROKO (Atlas + desertua)
93-9-1 / 93-9-1574.000 pta.
93-8-1 / 93-8-1574.000 pta.

- * 17 lagunentzako autokarabarekin goaz, litera, sukalde eta guzti.
- * Bizikleta eta piraguak eramango ditugu, mendiko trabesia bat ere egingo dugu oinez.
- * Informazio gehiago: 74 02 99 bulego orduetan.
(94) 613 40 75 gauean (Adrian).



MCCANN



OPEL GAMA OSOA ANALSAN

Opel Ordezkarari Ofiziala Deba eta Urola Bailaratarako.

OPEL 

Z U R E Z A I N G A U D E

ANALSA

Olaso, 25
Tel. 74 40 12
ELGOIBAR

Otaola ibilbidea, 27
Tel. 70 08 41
EIBAR

Plaza Auzoa, z/g
Tel. 75 50 72
MENDARO

OPEL ORDEZKARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENTZIAGATIK.